

Gozatu bertako **txakolinaz** eta **gastronomiaz**

AIARALDEA
EL DESTINO ES EL PAISAJE
HELMUGA PAISAIA DA

Esan dezakegu **txakolina** dela eskualde honen nortasuna hobekien definitzen duen produktua, paisaia anitzaren eta gastronomia aberats eta ezagunaren parte baita.

Ardo hori **familia-upategietan** ekoizten da. Upategi bakoitzak bere berezitasunak ditu, bai eta txakolina egiteko oinordetzan hartutako modu bat ere, zeinari eskuratutako eza-gutzak gehitzen zaizkion.

Txakolina zuzenean ezagutzeko modu hobetik ez dago **upategi horietako batzuk bisitatzera** baino. Horietan erakutsiko dizute nola egiten duten txakolina, eta, gainera, txakolina egoeratik onenean dastatzeko aukera izango duzu.

Eta, jakina, eska ezazu edozein **jatetxetan** edo ardo berezi eta bikain hori ezagutzera emateko urtero egiten diren **azoketan**.

Baina ezagutu nahi baduzu, **Aiaraldeako Txakolinaren Ibilbidean** esperientziak paregabeak bizi ahal izango dituzu: bisita gidatuak upategietara, jarduera paraleloak eta dastatzeak.



Txakolin-upategiak

- 1 Artomaña (610 33 41 37)
- 2 Astobiza (607 40 03 21)
- 3 Beldui (685 75 76 48)
- 4 Garate (659 06 03 91)
- 5 Txikubin (Murga dorretxea) (659 010 617)



Historia-ondarea

AYALA / AIARA

- 1 Luiaondo Malato zuhaitza
- 2 Murga Dorretxea
- 3 Olabezar Saraubeko zelaia
- 4 Quejana / Kexaa Monumentu-multzoa
- 5 Añes San Bizenteko portada erromanikoa

AMURRIO

- 6 Santa Maria elizako erretaula
- 7 Mariaka dorrea
- 8 Elexazarreko aztarnategi erromatarra

ARTZINIEGA

- 9 Ortiz de Molinillo eta Velascoren dorretxea
- 10 Hirigune historikoa
- 11 Ama Agustindarren komentuarien portada
- 12 Pablo Respalzaren Sutegia
- 13 Arteako Andra Mariaren Santutegia

LAUDIO / LLODIO

- 14 Anuntzibaiko jauregia, zubia eta burdinola
- 15 Katuxa jauregia
- 16 Lamuza parkea
- 17 Ermualde
- 18 Ugarte dorretxea

OKONDO

- 19 San Roman eliza



Natura-ondarea

- 1 Nerbioiko ur-jauzia
- 2 Gorobel mendilerroa (Fraidearen tontorra, Txarlazo, Tologorri eta Ungino)
- 3 Maroñoko urtegia
- 4 Esquina de Rubén behatokia
- 5 Menoio Etxaurren basiliza
- 6 Ganekogorta



Ibilbideak

- 1 GR 284 Sopeñako Errege Bidea
- 2 Nerbioiko Parke Lineala
- 3 Burdin Hesiaren ibilbidea
- 4 PR-A 37 Aspaltza Zirkularra



Birding

- 1 Gorobel mendilerroa



Museoak

- 1 Amurrio Manuel Acha Likorearen Museoa (945 39 37 04)
- 2 Artziniega Etnografia Museoa (945 39 62 10)
- 3 Artziniega Santxotena tailer-museoa (945 39 66 64)
- 4 Artziniega Eleiz Museoa (945 39 60 66)

Lehenatasunezko jarduketaren eremuak, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin.
Zonas de Actuación Preferente con la financiación de Gobierno Vasco.



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

araba álava
foru aldundia diputación foral



INFORMAZIOA
Amurrio (945 39 37 04)
Laudio/Llodio (94 403 49 30)



www.aiaraldea.org





Txakolin mah astiak eta Gorobel mendilerroa

Badakigu IX. mendean bazirela txakolinari buruzko zenbait aipamen, eta horrek adierazten du aspaldiko edaria dugula. **Txakolina** fruta-usaina, ukitu garratza eta zertxobait karbonikoa duen ardoa da, eta hotz hartzen da.

Gorabehera ugari izan ditu, eta ia desagertu egin zen. XX. mendearen hasieran, ordea, indarra hartzen hasi zen eskualdeko ekintzaileei eta tradizioak babestu nahi zituztenei esker.

Batik bat **“Hondarribi zuri”** mahats barietarekin egiten da, hau da, jatorriz Euskal Autonomia Erkidegokoa den mahats zuriarekin. Normalean mahatsondoetan edo landare-sareetan hazten da, fruituak ez dezan lurra ukitu. Eskuz biltzen da mahatsa, eta altzairu herdoilgaitzezko andeletan hartitzen da.

Aiaraldearen eta **Txakolinaren Ibilbidean** zehar, Arabako Artziniega, Ayala/Aiara, Llodion/Llodion Okondon eta Amurrio dira herri ekoizleak, eta denak dira **Arabako Txakolina / Txakoli de Álava JDkoak**.

Txakolina beti aurkituko dugu eskualde honetako edozein esperientzia gastronomikotan, dela **pintxo** (miniaturazko sukaldaritzan)

ospetsuez gozatuz, dela edozein jateke edo tabernatan.

Aiaraldean kalitate handieneko gastronomiaz gozatzeko aukera emango dizuten baserri, oinetxe eta jateke ikusgarriak aurkituko dituzu.

Txakolinak, gainera, paisaia bikaina eraten du, euskal lurralde honen nortasun; beraz, ziurtatuta duzu zure egonaldia naturaz inguratuta egongo dela alde guztietatik.

Aiaraldera maiatzaren amaieran etortzen bazara, zoaz Amurrion **Txakolin Eguna** ospatzera. Egun horretan, upategiek beren ardoak erakusten dituzte gazta, gozoki eta artisautza produktuen ekoizleekin batera, eta kaleak euskal folklorearen musikarekin alaitzen dira.

Azken batean, proposatzen dizugu upategiak ezagutzea; gastronomia bikainaz gozatzea, txakolin hotzarekin bada, hobeto; ostatu ezin hobeetan atsedean hartzea, askotan naturaz inguratutako parajeetan baitaude; eta askotan ezezaguna den eskualde miragarri honetako artisautza- edo gastronomia-produktuak erori eta zure jatorrira eramateko aprobetxatzea.



Murga Dorretxea



Gastronomía esperientzia gisa



Txakolina, neurri batean, **Aiaraldea** eskualdearen nortasunaren adierazgarri dela esan dugu; baina ezin dugu ahaztu gastronomiaren kalitatea ere bikaina dela, aintzat hartzen badugu nazioartean ezaguna den **euskal gastronomiari** laguntzen diola. Bakailao errezetak, txuletoiak, babarrunak eta baratzeiko kalitate bikaineko gainerako produktuak aurkituko dituzu edozein jateketan, baserri gastronomikotan edo bertako taberna eta tabernetako **pintxo** barretan.



Beraz, proposatzen dizugu uztar dezazula txakolin freskoa eskualdeko produkturik hurbilenetako eta ezagunenetako batzuekin, hala nola **odolki** eta **txorizoekin**, **gaztarekin** eta **etxeko ogiekin**. **Eztia eta gozoki** tipikoak ere ezin ditugu ahaztu.

Eta gazte buruz hitz egiten badugu, gaztandegi batek baino gehiagok ekoizten dituzte **ardi “latxa”** autoktonoaren esneaz egindako **Idiazabal JDko** produktuak.

Horietako bat bisitatzera anima zaitzeteke. Oso interesgarria irudituko zaizu gazta egiteko prozesua, eta gazta desberdinak probatzeko aukera ere izango duzu.



Alde batera utzi ezin dituzun esperientzia gastronomikoak.



Txakolinaren ibilbidea

Aiaraldeko Txakolinaren Ibilbideak aukera emango dizu esperientzia enogastronomiko paregabeaz gozatzeko. Marka horren pean biltzen dira **txakolindegia, jatekeak, ostatuak, dendak** eta **turismo-bulegoak**. Horiek guztiek lagundu egingo dizute gure tokiko produktuen kalitatea ezagutzen eta dastatzen eta horien artean, eragile gidari gisa, txakolinak.

Marka horren pean, gainera, jarduera ugari antolatzen dira, kultura, tradizioak eta gozamen enogastronomikoa **batzen dituen esperientzia** hori are gehiago gozatzeko. Etorri behar baduzu, jaso informazioa aurretik, horietakoren batez gozatu ahal izateko.



TXA RUTA DEL
TXAKOLI
AIARALDEA

